

# RASFF

---

# TXOSTENA


## ALERTAK eta IAKINARA7PFNAK

Jakinarazpenen sailkapena  
Jakinarazpenen jatorria  
Jakinarazitako arriskuen tipologia  
Tartean dauden lehengai eta pentsuak  
Laburpen-taula

### JAKINARAZPENEN SAILKAPENA

2016ko bigarren lauhilekoan, animalien elikagaiei buruzko **71 jakinarazpen** egin dira. Horietatik **13 alertak izan dira, 40 informazio-jakinazpenak eta 18 mugan egin diren ukapenak.**

Egindako kontrol-motari dagokionez, **26 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte; **24** pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **Kontrol Ofizialek** igorri dituzte; **20 autokontroletan atzeman dira** eta industriak berak igorri ditu; azkenik, **kasu bat bezero baten erreklamazioak eragin du.**



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan jasotako **71 jakinarazpen** horietatik **35 (% 49) beste herrialde batekoak** izan dira. Jakinarazpen gehien herrialde hauek egin dute: 5 Ukranian, 5 Txinak eta 5 Indiak.

**Ukranian** dagozkion jakinarazpenak **artoa (3)** izandako **aflatoxina B1** presentziagatik eta **koltzan (1) eta liho-hazian (1)** izandako **salmonella** presentziagatik egin dira.

**Txinaren** kasuan, jakinarazpenak honako hauen presentziarekin daude lotuta: **enterobakteriak txakurrentzako mastekagarrietan (3) eta salmonella sojan (2).**

**Indiaren** kasuan, jakinarazpenak **txakurrentzako mastekagarrietan aurkitutako salmonellarekin (5)** daude lotuta.


**Jakinazpen gehien egin duen herrialdea** Belgika izan da: guztira 15 egin ditu. Belgikaren ondoren, Alemania (12), Holanda (5) eta Suedia (5) daude.

### JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Denbora-tarte horretan atzemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak** izan dira (**% 51**). **Jakinarazpenen % 9 mikotoxinen** presentziari dagozkionak izan dira, eta **horren ondoren dago baimendu gabeko Animalia Proteinen presentzia (% 7)**. **“Beste arrisku batzuk”** taldeak (gospol librearen, pestiziden eta abarren presentzia) **jakinarazpenen % 28 eragin ditu**.

Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehienak (36 jakinarazpenetik 29). Salmonella aurkitu den lehengaien artean arrain-irina, haragi-irina, txakurrentzako mastekagarriak eta sojatik eratorritako produktuak nabarmendu behar dira.

Era berean, nabarmentzekoa da *Ambrosia spp.* hazien presentziak eragindako jakinarazpenen kopurua (7).



### TARTEAN DAUDEN LEHENGAI ETA PENTSUAK

Produktuka, **lehengai**ei dagozkie jasotako **jakinarazpenen % 59**, **laguntza-animientzako pentsuei % 27**, **loditzeko animalientzako pentsu konposatu eta osagarri**ei % 8 eta **gehigarri eta aurre-nahasketei % 6**.

Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira hurrenkera honetan: **txakurrentzako mastekagarriak (15)**, **arrain-irina (10)**, **soja-produktuak (8)** eta **loditzeko animalientzako pentsu konposatuak (6)**.



#### AURREKO LAUHILEKOAREKIKO ALDERAKETA

- 2016ko bigarren lauhilekoan **71 jakinarazpen** egin dira, eta 2016ko lehenengo lauhilekoan, berriz, 74 jakinarazpen.
- Halaber, lauhileko honetan nabarmentzekoa da RASFFri bidalitako jakinarazpen-kopuruak gora egin duela. Jakinarazpen horien jatorria pentsuen ekoizpen-kateko hainbat gunetan administrazioak eginiko Kontrol Ofizialak dira (jakinarazpenen % 22tik % 34ra). Bestetik, azpimarratzekoa da, era berean, nabarmen egin dutela behera enpresetako autokontrolak eginiko jakinarazpenek (jakinarazpenen % 47tik % 28ra).
- Bigarren lauhileko honetan, jakinarazpenen % 49ren jatorria hirugarren herrialde batean egon da (2016ko lehenengo lauhilekoko proportzio bera).
- Jakinarazitako arriskuen tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da gora egin dutela txakurrentzako mastekagarrietan (15) eta arrain-irinetan (10) hautemandako Bat Ez Ertortzeengatik eginiko jakinarazpenek.

**Eranskina.** RASFFren bidez 2016ko 2. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula.

ARRISKUA	KLASEA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	27	Soja-irina	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
			Soja-taloa	1	<i>Salmonella Tennessee</i>
			Soja-estraktua	1	<i>Salmonella Mbandaka, Salmonella senftenberg</i>
			Soja-haziak	1	<i>Salmonella Mbandaka</i>
				1	<i>Salmonella Mbandaka, Salmonella senftenberg</i>
			Txakurrentzako mastekagarriak	6	<i>Salmonella spp.</i>
				2	<i>Salmonella Derby</i>
				1	<i>Salmonella Haifa</i>
			Koltza-irina	2	<i>Salmonella spp.</i>
			Liho-hazien taloa	1	<i>Salmonella spp.</i>
			Ilarraren proteina pellet-etan	1	<i>Salmonella Montevideo</i>
			Haragi-irina	1	<i>Salmonella Brandenburg</i>
1	<i>Salmonella Infantis</i>				
Arto-irina	1	<i>Salmonella typhimurium</i>			
Arrain-irina	4	<i>Salmonella spp.</i>			
	1	<i>Salmonella Cerro</i>			
	1	<i>Salmonella Senftenberg</i>			
ARRISKUA	KLASEA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella + enterobacteriaceae	2	Txakurrentzako mastekagarriak	2	<i>Salmonella spp + enterobacteriaceae</i>
	Enterobacteriaceae	6	Arrain-irina	2	<i>Enterobacteriaceae</i>
			Txakurrentzako mastekagarriak	3	<i>Enterobacteriaceae</i>
			PAP	1	<i>Enterobacteriaceae</i>
Clostridium perfringens	1	Arrainentzako aurre-nahasketa	1	<i>Clostridium perfringens</i>	

ARRISKUA	KLASEA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.
<b>Mikotoxinak</b>	B1 Aflatoxina	6	Kakahueteak	3
			Ekilore-haziak	2
			Pentsu konposatua	1
<b>Dioxinak</b>	Dioxinak	1	Zitrikoen azala	1
<b>Metal astunak</b>	Kadmioa	1	Manganeso-oxidoa	1
	Merkurioa	1	Arrain-irina	1
	Beruna	1	Haragi-irina	1
<b>PAE</b>	PATak	5	PAP	1
			Pentsu konposatua	2
			Arrain-irina	1
			Lehengaiak	1
<b>Beste batzuk</b>	Akaroak	1	Txakurrentzako mastekagarriak	1
	<i>Ambrosia spp.</i> haziak	7	Soja	3
			Ekilore-haziak	2
			Maskotentzako pentsua	1
			Pentsu konposatua	1
	Gosipol librea	1	Kotoi-hazia	1
	Burdin-eduki desegokia	2	Maskotentzako pentsua	2
	Selenio-eduki desegokia	1	Pentsu konposatua	1
	Zink-eduki desegokia	1	Pentsu konposatua	1
	D3 bitamina-eduki desegokia	1	Lehengaien nahasketa	1
	Metronidazol baimendu gabea	1	Gazur-hautsa	1
	Lizunak	2	Artoa	2
	Ez dauka horretarako baimenik.	1	Liho haziak	1
	Zikinkeria	1	Artoa	1
Tilosina baimendu gabea	1	Antikokzidioa	1	